

**HERNANIKO LOKAL HUTSETAN JARDUERA EKONOMIKO BERRI BAT
MARTXAN JARRI NAHI DUTEN EDO, LEHENDIK EGON BADAGOEN ARREN,
IXTERA DOAN JARDUERA BATI JARRAIPENA EMAN NAHI DIOTEN
EKINTZAILEENTZAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK – 2023**

HERNANIKO UDALA

ARRAZOIEN AZALPENA

Udalak, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailarekin eta Ikertalde erakundearekin elkarlanean egindako Hernaniko 2019ko Merkataritza Ekintza Planaren lehentasunen artean udalerriko lokal hutsen erabilera erraztea ezarri zen. Bestetik, Kaleen eta lokal hutsen itxura hobetzeko asmoz, GUZION programa jarri zen martxan eskualdean. Programa horri erantsita, irudia hobetzeaz gain, Hernaniko Udalak jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzea sustatu nahi ditu, eta ekintzaileei lokal horietan jarduera ekonomiko bat ezartzen lagundu nahi die, diru-laguntza baten bidez, lokal horien alokairuen zati bat ordaintzen laguntzeko eta are lokala erosten laguntzeko ere. Era berean, eta lehendik egon dauden jarduerak betiko ixtea saihesteko, ixtera doan jarduera baten kudeaketa bereganatzen dutenei ere lagundu nahi zaie.

Publizitate-, lehia- eta objektibotasun-printzipioen mesedetan, gardentasun-parametroen arabera, oinarri arautzaile hauek sustatzen dira, onuradun izan daitezkeen pertsonen artean ahalik eta zabalkunde handiena izan dezaten.

1. artikulua. XEDEA

Oinarri hauen xedea da 2023an diru-laguntzak emateko arau erregulatzaileak ezartzea honako helburu hauetarako:

1.- Hernaniko lokal hutsak alokatzeko edo erosteko, lokal horietan jarduera ekonomiko berri bat garatu ahal izateko, edozein pertsona fisiko edo juridikok sustatua, eta lanposturen bat sortzea ekarriko duena; lehenengo laguntza hori lortuta, aukera izango da bigarren bat eskuratzeko, jarduera berria sortzeak eragindako kostuen zati bat estaltzeko. Sustatzailea jarduera ekonomiko berria jarriko den lokalaren jabea bada, jarduera berria sortzeak eragindako kostuen zati bat estaltzeko laguntza eskuratu ahal izango du

2.- Hernaniko Jarduera ekonomiko bat garatzen ari diren arren ixtera doazen lokalak alokatzeko edo erosteko, jarduera horri jarraipena eman ahal izateko eta lanposturen bat mantendu ahal izateko, edozein pertsona fisiko edo juridikok sustatua; lehenengo laguntza hori lortuta, aukera izango da bigarren bat eskuratzeko, jarduera berriz irekitzearen kostuen zati bat estaltzeko.

2. artikulua. ARAUDI ERREGULATZAILEA

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretua, Hernaniko Udalaren 2023-2025 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru-laguntzak emateko Araudia, eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

3. artikulua. APLIKAZIO EREMUA

Diru-laguntza jasoko dute

1.- jarduera ekonomiko berri bat abian jartzeko Hernaniko lokal hutsak alokatzeko edo erosteko kontratuek, 2022ko abuztuaren 1etik 2023ko urriaren 31ra arte sinatuak. Ez dira sartzen industrialdeetan kokatutako lokalak. Lokal hutsak dira berriz ireki arte gutxienez 30 egunez okupatu gabe egon direnak.

2.- Jardueraren bat garatzen ari arren ixtera doazen Hernaniko lokalak alokatzeko edo erosteko kontratuek, 2022ko abuztuaren 1etik 2023ko urriaren 31ra arte sinatutakoak, hain zuzen ere garatzen ari diren jarduera horri jarraipena emateko helburua izango dutenak. Ez dira sartzen industrialdeetan kokatutako lokalak.

3.- jarduera ekonomiko berri bada, hura sortzeko kostuaren zati bat estaltzeko laguntza:

- Lokala erosi edo alokatuz gero, beharrezkoa izango da lehenik alokairurako edo erosketarako laguntza lortzea.
- Sustatzailea lokalaren jabea bada, kasu guztietan

4.- Lehendik dagoen jarduera bat bada, jarduera berriz hasteko eta egokitzeko kostuen zati bat estaltzeko laguntza

4. artikulua.- AURREKONTU-ZUZKIDURA

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak 2023rako udal-aurrekontuko partida honen bidez finantzatuko dira: 1.02.471.02.439.00.2023 Diru-laguntzak-lokal hutsen alokairua. Erabilgarri dagoen diru kopurua 50.000 eurokoa da.

Finantza-erabilgarritasunaren arabera, Hernaniko Udalak dagoen aurrekontu-zuzkidura handitu ahal izango du, baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko. Aurrekontu-kreditua handitzearen ondorioz laguntzen hasierako zuzkidura handitzeko, ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea.

5. artikulua. ESKATZAILEEK ONURADUN IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Laguntza hauen eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Jarduera edo proiektu bideragarri bat izatea
- Foru-ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak egunean izatea
- Hernaniko Udalak euskararen erabilerari buruz duen araudia betetzea
- Hernaniko Udalekin zorrik ez izatea
- Pertsona fisikoen kasuan, ahaidetasun-harremanik ez izatea lokalaren jabearen ezkontidearekin, ondorengoekin edo bigarren mailara arteko (hori barne) odolkidetasunezko edo ezkontzazko ahaidetasuna duten gainerako pertsonekin. Pertsona juridikoen kasuan, baldintza hori bera betetzea erakundeko zuzendariek, jabeek edo akziodunek.
- Eskatzen zaion beste edozein.

Honako egoera hauetakoren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak ezin izango dira onuradun izan:

- Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo baten bidez honako delitu hauengatik kondenatuak izan direnak: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoen bidegabeko erabilera, eraginen trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.
- Borondatezko lehiaketa publikoaren deklarazioa eskatu dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratuak izan direnak, konkurtsoan deklaratu daudenak (hitzarmen batek bere eraginkortasuna lortu duenean izan ezik) esku-hartze judizialaren mende daudenak edo inhabilitatuak izan direnak.

- Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izan dutenak
- Diru-laguntzak Itzultzeko betebeharrak ordainduta ez dituztenak

6. artikulua GARATU BEHARREKO JARDUERA MOTAK

Hutsik dauden lokaletan honako jarduera hauek egin beharko dira:

- txikizkako herri merkataritzako jarduerak, azken bezeroarekin edo herritarrekin harreman zuzena dutenak
- kale eta eremu jakin batean biziberritze ekonomiko eta sozialerako lagungarria izango dela jotzen den bestelako edozein jarduera komertzial
- pertsonei zuzendutako zerbitzuak, ausazko jokoan eta apustuen jarduerak izan ezik
- frankiziatutako edozein jarduera espresuki kanpo geratzen da

Nahitaezkoa izango da dagoeneko martxan dauden lokaletan nahitaezkoa izango da lehendik dagoen jarduerari eustea

7. artikulua LOKALEN JABEEN ETA EKINTZAILEEN ARTEKO KONTRATUAK FORMALIZATZEA

Hernaniko Udalak ez du parte hartzen alokairu edo erosketa-kontratuaren formalizazioan. Alokairu edo eros-kontratua, beraz, jabeei eta maizterrei edo erosleei baino ez dagokie.

Maizterrak oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzetan jaso ahal izateko, lokalaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko prezioa hau izango da:15.- € / m2

Lokala erosiz gero, metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko prezioa 1.500 eurokoa izango da.

8. artikulua LOKALAREN ALOKAIRU KONTRATUAREN IRAUPENA

Alokairu-kontratuak gutxienez 12 hilabete iraungo du.

9. artikulua DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

1.- Lokala alokatzeko diru-laguntza

Diru-laguntza kalkulatzeko kontuan hartzen den prezioa alokairu garbiaren kostua da, zergak kenduta. Sustatzaile eta lokal berarentzako diru-laguntzek gehienez bi urteko iraupena izango dute.

Lehenengo urtean, kostuaren % 50eko diru-laguntza emango da, eta hilean 500 euro gehienez.

Bigarren urtean, kostuaren % 40ko diru-laguntza emango da, eta hilean gehienez ere 400 €.

2.- Lokala erosteko diru-laguntza

Lokala erosteko diru-laguntza prezioaren % 5ekoa izango da, zergak kenduta, gehienez ere 10.800 eurokoa.

3.- Jarduera ekonomiko berria sortzeko edo dagoen jarduera berriro irekitzeko diru-laguntza

Jarduera ekonomiko berria sortzeko edo dagoen jarduera berriro irekitzeko laguntzei dagokienez, justifikatutako kostuen % 50ekoa izango da, eta jarduera bakoitzeko gehieneko muga 2000 euro izango da:

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzeko, Hernanin kokatutako hornitzaileekin erosi edo egin beharko dira. Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauek izango dira:

- Enpresa eratzeko eta jarduera baimena eskuratzeko gastuak
- Notaritzako eta erregistro gastuak
- Aholkularitzako gastuak
- Obra proiektuak eta egokitze laneko obrak egitea
- tresneria, altzariak, makineria, etab
- proiektuarekin zerikusia duten komunikaziorako gastuak
- Hernaniko Merkatarien eta Ostalarien Elkarteko kuota

10.- artikulua.- LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste entitate publiko edo pribatu batzuek xede berarekin emandako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da gainfinantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, diru-laguntza murriztu egingo litzateke. Gainfinantzaketa geroago gertatzen bada, eta dirua itzultzeko betebeharrak bat baino gehiago badago, pertsona edo erakunde onuradunak, lehenik eta behin, udalak emandako ekarpenari dagokion zati proportzionala itzuli beharko du.

11. artikulua.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO MODUA

Eskaerak legezko ordezkariak edo eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu, Udalak prestatutako eskabide-eredu normalizatuan

-telematikoki, Hernaniko Udaleko erregistro elektronikoaren bidez

- Aurrez aurre Hernaniko Udaleko hhz bulegoan (Herritarren Harrera Zerbitzua), Gudarien plaza 1., astelehen, asteazken eta ostiraletan 8: 00etatik 14: 00etara eta astearte eta ostegunetan 08: 00etatik 18: 30era

Ez dira onartuko eskaera-orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentu guztiak aurkezten ez dituzten eskabideak (informazioa: 943-335021 eta 943-337035)

Oinarriak eta GUZTION lokalen zerrenda eskuragarri egongo dira Hernaniko Udalaren webgunean eta hhz bulegoan (Gudarien plaza 1).

Eskabidea egitean aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Interesdunek eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du oinarri hauen edukia onartzea. Laguntza hauek jaso nahi dituztenek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

A.-jarduera berria bada

Eskabide-orria osorik beteta, oinarri hauetako 1.1. eranskineko ereduaren arabera (pertsona fisikoa bada) edo 1.2. eranskineko ereduaren arabera (pertsona juridikoa bada). Jarduera ekonomiko berria sortzeko laguntza ere eskatzen badu, 2. eranskina

Lokalaren jabea izanez gero, 1.3 eta 2 eranskinak.

B.- lehendik dagoen jarduera bat bada

Eskabide-orria osorik beteta, oinarri hauetako 1.4 eranskineko ereduaren arabera (pertsona fisikoa bada) edo 1.5 eranskineko ereduaren arabera, (pertsona juridikoa bada). eta 2. eranskina, jarduera berriz irekitzeko laguntza ere eskatzen badu.

Eta kasu guztietan

- 1.- Enpresa proiektua eta jardueraren bideragarritasun plana, honako hauek barne:: jardueraren oinarritzko datuak azaltzen dituen txostena, sustatzailearen edo sustatzaile taldearen ezaugarriak, bideragarritasun ekonomikoaren azterketa, merkatu ikerketa, sortuko den lanpostu-kopurua, langile autonomoak eta kontratatutakoak bereizita. Lan-kontratua lanaldi partzialekoa bada haren ehunekoa adierazita.
- 2.- Alokairua bada kasuan, alokairu-kontratua. Telematikoki egiten bada, alokairu-kontratua eskaneatuta
- 3.- Lokal erosketa bada, salerosketa-eskriturak eta ordainketaren egiaztagiria.
- 4.- Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NAN.
- 5.- Pertsona juridikoa bada, erakundearen eraketa-akta eta IFK txartelaren fotokopia. Horrez gain, eskatzailearen NAN. Telematikoki egiten bada biak eskaneatuta
- 6.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eta dagokion ogasunak emandakoak. Zerga betebeharren kasuan, eskatzaileak sinatutako adierazpen bat ere aurkez daiteke, zeinen bidez berariazko baimena emango zaien ziurtagiri horiek egin behar dituzten erakundeei ziurtagirietan agertu beharreko datuak zuzenean Hernaniko Udalari lagatzeko.
- 7.- 3. eranskina Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen inguruko aitorpena
- 8.- 4. eranskina Euskara irizpideen inguruko aitorpena
- 9.- Eskatzailearen kontu korrantearen titulartasun-agiria

Era berean, udalak eskabidea baloratu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen beste agiri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango du.

12. artikulua.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAK

Eskabideak aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarriak argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko urriaren 31n amaituko.

13. artikulua.- JARDUERA BERRI BAT ABIAN JARTZEKO ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Kreditu erabilgarriak Udalak jasotako eta baliozkotutako eskabide guztiak diruz laguntzeko aukera ematen badu, guztiak lagunduko dira diruz. Eskaerak kreditu erabilgarria gainditzen badute, eskabideak irizpide hauen arabera sailkatuko dira:

- Enpresa-proposamenaren balorazioa: 10 puntu, gehienez. Proposamena Iturrola Elkarlan Sorguneak baloratuta badator, 10 puntu emango zaizkio.
- Lanpostuen kopurua: 10 puntu, gehienez, honela banatuta: autonomo bakoitzeko edo lanaldi osorako kontratatutako pertsona bakoitzeko: puntu bat; lanaldi partzialerako kontratatutako pertsona bakoitzeko, zati proportzionala, lanaldi oso bat puntu gisa hartuta.
- GUZTION Programa: lokala GUZTION programaren barruan bada, 5 puntu

Berdinketarik egonez gero, eskaerak jarduerak abian jartzeko egindako inbertsio handienaren arabera sailkatuko dira, eta Hernanin kokatutako enpresetan egindako gastuak soilik hartuko dira kontuan.

Balorazio horiek egiteko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, eta honako hauek osatuko dute: Merkataritza eta Turismoko teknikariak eta Enplegu eta Toki Garapeneko teknikariak.

Sailkapena ezarri ondoren, kreditu erabilgarria puntuazio altuena duten eskabideen artean banatuko da

14. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA EMATEKO EBAZPENA

Alkatetza-dekretu bidez emango da diru-laguntza emateko ebazpena.

Laguntzak emateko ebazpenean berariaz zehaztuko da laguntzen zenbatekoa, eta, hala badagokio, onuradunak bete behar dituen baldintzak, betebeharrak eta zehaztapen osagarriak jasoko ditu. Interesdunei 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitako moduan jakinaraziko zaie.

Ebazpena, halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Diru-laguntzen Datu-base Nazionean argitaratuko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, Hernaniko Udalak erabakitzen duen beste hedabide batzuetan, emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda argitaratuko da. Zerrenda horretan, berariaz jasoko dira laguntza ezesteko edo ez emateko arrazoiak. Argitaratzeari dagokionez honako hauek hartuko dira kontuan: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikulua eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikulua hartuko dira kontuan.

Diru-laguntzei buruzko Araudiaren (887/2006 ED) 63.3 artikuluari jarraituko zaio, deialdian pertsona onuradun izateko ezarritako baldintzak bete arren deialdi horretan ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik onetsiak izan ez diren eskaera guztien zerrenda ordenatua ebazpenean sartzeari dagokionez. Ebazpen berri baten bidez diru-laguntza berriak eman ahal izango dira, ezetsitako eskabide horien zerrendako lehentasun-hurrenkerari jarraituz, onuradunen batek berariaz uko egiteagatik liberatutako kreditua agortu arte, 2022eko abenduaren 31ra arte.

Ondorio horietarako, berariaz uko egindakotzat hartuko da oinarri hauetan ezarritako baldintzaren bat ez betetzea.

Epe horiek igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera baliozkotzat joko da administrazio-isiltasunez.

Diru-laguntza ematearen aldeko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka berraztertzeako errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke, 2 hilabeteko epean, Beterri-Buruntza eskualdeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

15.artikulua.- ORDAINTZEKO MODUAK

Alokairuen kasuan, maizter bakoitzak alokairuaren hileroko ordainagiria aurkeztu beharko du udalean. Udalak diru-laguntzaren onuradunari emango dizkio onartutako zenbatekoak, Autonomoen Erregimenean alta eman edo, hala badagokio, Gizarte Segurtasunaren Erregimen Orokorrean alta eman zenetik eta sei hilabete igaro ondoren, eta gabezia horrekin berarekin, hurrengo transferentziak ere. Edozein arrazoiengatik lokalean jarritako jarduera etengo balitz, une horretan bertan amaituko litzateke diru-laguntza.

Lokala erosiz gero, Udalak diru-laguntzaren % 50 transferituko dio onuradunari lehenengo urtea igaro ondoren eta beste horrenbeste bigarren urtea igaro ondoren. Edozein arrazoiengatik lokalean jarritako jarduera etengo balitz, une horretan bertan amaituko litzateke diru-laguntza.

Jardueraren funtzionamenduarekin eta abiaraztearekin lotutako gastuetarako laguntza bada, Udalak dagokion diru-laguntza transferituko du, alokairuagatiko diru-laguntzaren ordainketekin batera.

16. artikulua.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- Diru-laguntzaren xede den lokalean, eskatutako jarduera ekonomikoa bakarrik egin ahal izango da.

17. artikulua.- ADOSTASUN-ADIERAZPENA

Diru-laguntzaren eskaera aurkeztean, eskatzaileak bere adostasuna ematen du eta adierazten du oinarri hauek ezagutzen dituela, deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta deialdia oso-osorik onartzen duela.

18. artikulua.- DATU PERTSONALEN BABESA

Eskatzaileak adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan trata daitezela, eta baimena ematen duela datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzeko, nahiz eta datu horiek beste administrazio publiko batzuei eta haien erakundeei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkien, Datu pertsonalak babesteko 2016ko apirilaren 27ko EB 2016/679 Erregelamendu Orokorraren 6.1.e. artikuluan aurreikusitako kasuetan